

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 19/2023 Foru Dekretua, maiatzaren 23koa. Onestea Kontseiluaren apirilaren 4ko 11/2023 Foru Dekretuaren aldaketa, zeinaren bidez onesten baita hauteskundeetako gastuetarako dirulaguntzen aurrerakinak ematea Arabako Batzar Nagusietarako azken hauteskundeetan ordezkariak lortu zituzten eta Batzar Nagusietarako 2023ko hauteskundeetan lehiatzen diren alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle elkarteei

Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 4ko 11/2023 Foru dekretuaren bidez arautu zen hauteskundeetako gastuetarako dirulaguntzen aurrerakinak ematea Arabako Batzar Nagusietarako azken hauteskundeetan ordezkariak lortu zituzten eta Batzar Nagusietarako 2023ko hauteskundeetara aurkeztzen diren alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle elkarteei, eta, hala eginez gero, gehieneko zenbateko hauek eskatzeko eta jasotzeko eskubidea aitortu zuen:

2023KO HAUTESKUNDEAK: GASTUENGATIK DIRULAGUNTZEN AURRERAKINAK JASOTZEKO ESKUBIDEA DUTEN ALDERDI POLITIKOAK	BP	ZENBATEKOA
Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV)	G48103956/10006867	33.883,01 €
Euskal Herria Bildu	G71206700/10006933	40.535,91 €
Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra PSE-EE-Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra PSE-EE (PSOE)	G28477727/10006833	36.730,96 €
Elkarrekin Podemos	V01577014/10008459	14.927,41 €
Alderdi Popularra-Partido Popular (PP)	G28570927/10006835	29.453,55 €
GUZTIRA		155.530,84 €

Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeak, maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen foru aldundiari jakinaraztea Batzar Nagusietarako hauteskundeetan lortutako emaitzengatik alderdi, koalizio edo hauteskunde federazioei legezkiekeen dirulaguntzen konaturako hauteskunde aurrerakinak. Zehazki, Eusko Alderdi Jeltzalea/Partido Nacionalista Vasco, EH Bildu, PSE-PSOE, Alderdi Popularra eta Elkarrekin Podemos alderdien administratzaile orokorrekin aurkeztutako eskaerak helarazi ditu.

Horrela, ikusirik aurkeztutako eskaerak eta 2023ko maiatzaren 2ko ALHAOn aldarrikatutako eta argitaratutako hautagai zerrendak, Podemos, Ezker Anitza-IU eta EQUO Berdeak alderdi politikoei hauteskunde hauetan parte hartuko dute hauteskunde koalizio berri bat osatuta, hain zuzen, "Elkarrekin Podemos-Ezker Anitza/IU-Berdeak Equo-Alianza Verde" izenekoa. Kontuan hartuta, Alianza Verde izan ezik, gainerako taldeak batera aurkeztu zirela 2019ko hauteskundeetan Elkarrekin-Podemos izenarekin, eta, 11/2023 Foru Dekretuaren arabera, koalizio horrek eskubidea duela aurrerakina jasotzeko, bidezkoa da Elkarrekin Podemos-Ezker Anitza/IU-Berdeak Equo-Alianza Verde koalizioari esleitzea Elkarrekin Podemos taldeari 2019ko Batzar Nagusietarako hauteskundeetako emaitzengatik dagozkion aurrerakinak.

Horren ondorioz, aurretik esandakoa kontuan harturik, diputatu nagusiaren proposamenez eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau,

XEDATZEN DUT

Bakarra. Aldatzea Gobernu Kontseiluaren apirilaren 4ko 11/2023 Foru dekretua, zeinaren bidez onesten baita hauteskunde gastuengatik dirulaguntzen aurrerakinak ematea Arabako Batzar Nagusietarako azken hauteskundeetan ordezkariak lortu eta Batzar Nagusietarako 2023ko hauteskundeetara aurkeztzen diren alderdi politikoei eta hauteskunde federazio, koalizio eta elkarteei.

Aldatzea Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 4ko 11/2023 Foru dekretuaren seigarren xedapena. Foru Dekretu horren bidez onetsi zen hauteskunde gastuengatik dirulaguntzen aurrerakinak ematea Arabako Batzar Nagusietarako azken hauteskundeetan ordezkariak lortu eta Batzar Nagusietarako 2023ko hauteskundeetara aurkezten diren alderdi politikoei eta hauteskunde federazio, koalizio eta elkarteei. Honela geratzen da idatzita:

Aurreko zehaztasunak betetzen dituzten alderdi politikoei eta hauteskunde federazio, koalizio eta elkarteek Batzar Nagusietarako 2023ko hauteskundeetarako aurrerakin gisa jaso dezaketen zenbatekoa, gehienez, 155.530,84 euro da, honela banatuta:

2023KO HAUTESKUNDEAK: GASTUENGATIK DIRULAGUNTZEN AURRERAKINAK JASOTZEKO ESKUBIDEA DUTEN ALDERDI POLITIKOAK	BP	ZENBATEKOA
Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV)	G48103956/10006867	33.883,01 €
Euskal Herria Bildu	G71206700/10006933	40.535,91 €
Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra PSE-EE-Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra PSE-EE (PSOE)	G28477727/10006833	36.730,96 €
Elkarrekin Podemos-Ezker Anitza/IU-Berdeak Equo-Alianza Verde	V13657721/10029405	14.927,41 €
Alderdi Popularra-Partido Popular (PP)	G28570927/10006835	29.453,55 €
GUZTIRA		155.530,84 €

AZKEN XEDAPENA

ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 23a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kabinete eta Komunikazio zuzendaria

ELENA FERREIRA SEBASTIÁN